



Viceconsejería de Innovación Docente

Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetza

Curriculum-proposamena egiteko protokoloa, ECTS arauen arabera

AURKIBIDEA

1/ EDUKIAREN DATUAK

2/ IRAKASLEAREN DATUAK

3/ GAITASUNAK

3.1 Titulazioaren profilari dagozkion gaitasunak

3.2 Titulazioari dagozkion zeharkako gaitasunak

3.3 Irakasgaiari dagozkion gaitasun espezifikoak

4/ GAI-ZERRENDA

5/ METODOLOGIA: lanak, gaitasunak, denborak, lekuak, baliabideak eta ebaluatzeko tresnak.

6/ EBALUAZIOA: ebaluatzeko tresnak, gaitasunak, ebaluatzeko irizpideak, haztapena.

7/ BIBLIOGRAFIA

8/ ERANSKINAK

1/ EDUKIAREN DATUAK:

IKASTEGIA: Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea

TITULAZIOA : Kazetaritza

IZENA: Irrati eta telebistako informazioaren teoria eta teknika
KODEA: 13323

GRADUA/GRADUONDOA: Gradua

MAILA: Bigarren maila **KODEA:** 2 ikasturtea (31. taldea)

MOTA : Derrigorrezkoa

KREDITU-KOP.: 6 kreditu (6x25=150 ordu; 1 lauhilabetea)

IRAKASTEN DEN HIZKUNTZA:Euskara

2/ IRAKASLEAREN DATUAK:

IZENA ETA ABIZENAK: Gorka Jakobe Palazio

IFZ: 16036943-D

IKASGAIA EMATEN DEN IKASTEGIA: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

SAILA: Kazetaritza

TELEFONOA: 946015206

E-MAIL: gorka.palazio@ehu.es, gorka.palazio@gmail.com

WEBGUNEA: <http://www.palazio.org>

3.- GAITASUNAK

3.1.- GAITASUN OROTARIKOAK (ZEHARKAKOAK) O1, O2, O3...

1. Aztertze eta sintesi gaitasuna
2. Antolatze eta planifikatzeko gaitasuna
3. Ama hizkuntzan ahoz eta idatziz komunikatzeko gaitasuna
4. Informazioa kudeatzeko gaitasuna
5. Problemei irtenbideak emateko eta erabakiak hartzeko gaitasuna
6. Lantaldekideekin behar egiteko gaitasuna
7. Arrazonamendu kritikoa
8. Konpromezu etikoa
9. Sormena
10. Beste kultura eta ohitura batzuen ezagutza
11. Kalitatearenganako motibazioa
12. Ikertze joera etengabea eskuratzeko gaitasuna
13. Ikasteko ohitura bereganatzea
14. Informagai baten egoera (*state of the art*) ezagutu

3.2.- TITULAZIOKO GAITASUNAK (PROFILEKOAK) T1, T2, T3...

1. Gauzak trebeki adierazteko gaitasuna, gauzak esateko eraginkortasun komunikatiboa
2. Informazio testuak irakurtzeko trebezia
3. Informazio testuak jende arruntarentzat moldatzeko gaitasuna
4. Beste hizkuntza arrotz batzuetan komunikatzeko gaitasuna
5. Informazio eta komunikazio teknologiak eta teknikak erabiltzeko gaitasuna
6. Baliabide eta sistema informatikoak baliatzeko gaitasuna
7. Informazio proiektuak sortzeko, antolatze eta gauzatzeko gaitasuna
8. Kazetal langintzak gauzatzeko gaitasuna eta trebezia
9. Edozein informazio-iturri edo dokumentu bilatzeko, hautatzeko eta hierarkizatze gaitasuna
10. Informazioa eta komunikazioa berreskuratzeko, antolatze, aztertze eta prozesatzeko
11. Datuak eta estadistikak erabiltzeko eta beraien berri emateko gaitasuna
12. Ideiak arrazoiz agertarazteko gaitasuna, erretorika eta argumentazio teoriak aintzat hartuz.
13. Esperimentatzeko eta berrizatzeko gaitasuna teknika eta metodo aplikatuak erabiliz, era horretan ikaskuntza autonomia sustatuz

3.3.- IRAKASGAIKO BEREZKO GAITASUNAK I1, I2, I3...

1. Irrati albistearen ezaugarriez jabetu eta zuzen gauzatzeko gaitasuna
2. Irratiko albisteetako egitura gramatikalak eta entzunezko baliabideak gauzatu
3. Giza ahotsaren kalitateei erreparatzeko eta bozak bereizteko gaitasuna
4. Irrati eta telebistako iturrien kudeaketa nola egin
5. Informazio iturri egokienak irrati edo telebista motaren arabera egoki hautatzeko gaitasuna
6. Irratian eta telebistan informazio programazioa eta saioak bereizteko gaitasuna
7. Telebistako informazio zerbitzuen antolamendu desberdinez jabetu
8. Telebistako informazio alorreko berriemaileen lan desberdinak ondo burutzeko gaitasuna
9. Telebistako albisteen ezaugarriez jabetzeko eta ikusentzunezko albistea egiteko gaitasuna
10. Telebistako albisteen ikusentzunezko lengoia erabiltzeko trebezia.

4.- GAI ZERRENDA

Irrati eta telebistako informazioaren teoria eta teknika

- 1.Giza bitartekotza eta bitartekaritza teknikoa irratan
- 2.Irratia, informaziobide bezala
- 3.Mintzaira eta irradi estiloak
- 4.Irrati albisteen burutzea eta gidoia
- 5.Programazioa eta albiste saioak
- 6.Irratiko informazio iturriak
- 7.Irratiko informazio generoak
- 8.Informazio irradiaren egoera eta erronkak
- 9.Telebistaren hedapena eta informazio zerbitzuak
- 10.Telebista informazioa: kontzeptua eta erantzukizun soziala
11. Telebistalariaren lan-ingurumena
12. Telebistako mintzaira eta albistea
- 13.Gidoia, albisteen aurkezpena eta telebistako lokuzio teknikak
- 14.Telebistako gaitegia, programazio informatiboa eta entzuleria
- 15.Telebistako informazio saioak

5.- METODOLOGIA. ECTS kreditu-kopurua: 6 (6x25=150 ordu) Gutxigorabeherako ikasle-kopurua: 90

IKd: Ikasleak lanean ematen duen denbora. /IRd: Irakasleak ematen duen denbora ikasleak egiten dituen lanez arduratzen. B: bertaratzekoa; EB: erdi-bertaratzekoa; EzB: ez bertaratzekoa. Kopuruak orduka ageri dira, minutukako salbuespenak gorabehera.

Zeregin mota	Eskuratu beharreko gaitasuna	Bertaratzekoa/Er di bertaratzekoa/ Ez bertaratzekoa	IKd- B	IRd- B	IKd -EB	IRd -EB	IKd- EzB	IRd - EzB	Ikasgela-mota / baliabide materialak.	Lana Ebaluatzeko tresna
1.- Irrati albistea eta prentsakoa erkatu irrati estiloaz jabetzeko. Banaka egitekoa	11. Irrati albistearen ezaugarriez jabetu 12. Irratiko albisteetako egitura gramatikalak ika	B eta EzB	3	3			3	20	Ikasgela eta etxea / ordenagailua eta OpenOffice ofimatika-suite ez rprivatiboa	Lan praktikoa. Irrati-albiste baten idazketa. Errubrika
2.- Berriak kontatzeko ahots egokiena. Binaka egitekoa	13. Giza ahotsaren kalitateak. O12. Ikertzeko joera sustatu. O7. Arrazonamendu kritikoa O9. Sormena	EB eta EzB	2	1			3	20	Ikasgela eta etxea / ordenagailua OpenOffice ofimatika-suite ezpribatiboa	Lan praktikoa. Dossiera
3.- Informazio iturriak irrati albistegintzan	14. Irrati eta telebistako iturrien kudeaketa nola egin T9. Edozein informazio-iturri edo dokumentu bilatzeko, hautatzeko eta hierarkizatze gaitasuna. O9. Sormena 15. Informazio iturri egokienak irrati motaren arabera asmatu	B	3	3			0	3	Ikasgela / Ordenagailu gela	Galdera sorta (itemak). Errubrika.
4.- info-programazioa eta infosaioak burutzeko eskema aurkeztu	16. Irratian eta telebistan informazio programazioa eta saioak bereizteko gaitasuna	EB eta EzB	2	2			3	20	Ikasgela / Ordenagailu gela	Lan praktikoa. Errubrika.
5. Telebistako informazio zerbitzuen eta pertsonen antolamendua	17. Telebistako informazio zerbitzuen antolamendu desberdinez jabetu 18. Telebistako informazio alorreko berriemaileen lan desberdinak ondo burutzeko gaitasuna 01. Aztertze eta sintesi gaitasuna.	B	2	2				3	Ikasgela	Galdera sorta. Errubrika

Zeregin mota	Eskuratu beharreko gaitasuna	Bertaratzekoa/Er di bertaratzekoa/ Ez bertaratzekoa	IKd-B	IRd-B	IKd-EB	IRd-EB	IKd-EzB	IRd-EzB	Ikasgela-mota / baliabide materialak.	Lana Ebaluatzeko tresna
I6. Telebistarako hileko albisteak slideshow moduan egin	I9. Telebistako albisten ezaugarriez jabetzeko eta ikusentzunezko albistea egiteko gaitasuna	B eta EzB	4	4			5	20	Ikasgela. Ordenagailu gelan, Kazetaginean edo etxean	Lan praktikoa Errubrika
7. Telebistako albisten errakuntzei erreparatuz	I10. Telebistako albisten ikusentzunezko lengoia erabiltzeko trebezia. 011. Kalitatearenganako motibazioa	B eta EzB	2	2			0	3	Ikasgelan Proiektorea eta notebook-a	Galdera anitzeko azterketa. Errubrika
8. Informazio telebistaren barnemuinak	013. Ikasteko ohitura bereganatzea T4. Beste hizkuntza arrotz batzuetan komunikatzeko gaitasuna O4. Informazioa kudeatzeko gaitasuna O7. Arrazonamendu kritikoa	B eta EzB	30				88	20	Ikasgela / hotlista egiteko kartela eta Interneterako ordenagailua	Galdera sorta Errubrika

Ikasleentzat orotara: 48 klase-ordu eta 102 ikasleak tutoretzan eta bere kasa ikaslanak egiteko.
Irakaslearentzat orotara: 48 klase-ordu eta 109 ordu ikasgela eta laboratorietatik at.

6/ EBALUAZIOA

Kalifikazioak eta haien zenbakizko balioak:

<i>Zeregin edo ikaslan mota</i>	<i>Ebaluatzeko gaitasunak</i>	<i>Lana/Ebaluazio tresna</i>	<i>Ebaluatzeko irizpideak</i>	<i>Azken kalifikazioaren ehunekoa</i>
1	I1 I2	Lan praktikoa Errubrika	Errubrika (ikus eranskiko fitxa)	%10
2	I3, O12, O7, O9	Lan praktikoa Errubrika	Errubrika (ikus eranskiko fitxa)	%10
3	I4, T9, O9, I5	Aukera anitzeko azterketa	10 galdera, bakoitzak 4 item dituelarik (ikus eranskiko errubrika)	%10
4	I6	Lan praktikoa Errubrika	Errubrika (ikus eranskiko fitxa)	%10
5	I7, I8, O1	Aukera anitzeko azterketa	10 galdera, bakoitzak 4 item dituelarik (ikus eranskiko errubrika)	%10
6	I9	Lan praktikoa Errubrika	Errubrika (ikus eranskiko fitxa)	%10
7	I10, O11	Aukera anitzeko azterketa	10 galdera, bakoitzak 4 item dituelarik (ikus eranskiko errubrika)	%10
8	O13, T4, O4, O7	Hotlista/aukera anitzeko azterketa	20 galdera, bakoitzak 4 item dituelarik (ikus eranskiko errubrika)	%30

7/ BIBLIOGRAFIA

7.1.- OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

<i>Liburuak</i>	<i>Dokumentu edo tresna digitalak</i>
Palazio, Gorka Jakobe. <i>Irratibidearen barrunbean zehar. Harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara.</i> Bilbao: UEU, 2000.	http://www.palazio.org
Palazio, Gorka Jakobe. <i>Televisión informativa</i> Bilbao: Zopelana, 2005.	http://www.palazio.org/kazetaterm http://www.palazio.org/Laburzki http://zopelana.org/gorka

7.2.- SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA.

Allen, Robert C & Hill Annete (ed.). *The Television Studies Reader.* Erresuma Batua: Routledge, 2003.

Alesso, H. Peter. *E-Video.* Kolonbia: Pearson Educación, 2001.

Cebrián Herreros, Mariano. *La radio en la convergencia multimedia.* Bartzelona: Gedisa, 2001.

Cebrián Herreros, Mariano. *Información televisiva. Mediaciones, contenidos, expresión y programación.* Madril: Síntesis, 1998.

Cebrián Herreros, Mariano. *Información radiofónica.* Madril: Síntesis, 1997.

Cebrián Herreros, Mariano. *Información audiovisual, concepto, técnica, expresión y aplicaciones.* Madril: Síntesis, 1995

McFarland, David. *Future Radio Programming Strategies.* New Jersey: LEA, 1997.

Muñoz, José Javier eta Gil César. *La radio: teoría y práctica.* Madrid: IORTV, 1994.

Oliva Lluçia eta Sitja Xavier. *Las noticias en televisión.* Bartzelona: IORTV, 1992.

Peñafiel Carmen & Lòpez Nereida. *Claves para la Era Digital.* Bilbao: EHU, 2002.

Sanabria, Francisco. *Información audiovisual.* Bartzelona: Bosch, 1994.

Soler, Llorenç. *La realización de documentales y reportajes para televisión.* Barcelona: CIMS, 1998.

7-3/ WEBGUNE INTERESGARRIAK

· Copyscape
<http://www.copyscape.com>

· EITB 24
<http://www.eitb24.com>

· EITB
<http://www.eitb.com/euskara/albisteak/>

· Irratia.com
<http://www.irratia.com>

· Canal Bizkaia
<http://www.canalbizkaia.com>

· Radio-Televisión Española
<http://www.rtve.es>

· Proyección TV
<http://www.proyeccion.tv>

7.3.- IRAKASGAIAREKIN ERLAZIONATUTAKO ALDIZKARIAK

Uztaro

Zer

Aldizkari konparaketa:

<http://gorpal.blogthing.com/2004/08/31/kazetaritza-alorreko-aldizkari-zientifikoak/>

8.- ERANSKINAK

Hona hemen ikaslan edo zeregin guztiei buruzko datuak. Zerrenda honetan ageri diren itemak datubasean daude sartuta. Ikasturtero aldatzen dira ikaslanak eta datubaseko item bakoitzak bi gauza ditu: ikaslanari buruzko oinarritzko informazioa eta erantsita PDF, TXT, SXW, XML, XHTML edo RTF formatu estandarrean ikaslan bakoitzari datxekion dokumentua ikaslana burutzeko.

1. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasmaila	2. maila.
Ikasturtea	2005-06
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I-1 Irrati albistea eta prentsakoa erkatu irrati estiloaz jabetzeko
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	banakakoa
Denbora	6 ordu (3p-3ezp)
Epemuga	Astebeteko epean, behin ikaslana ikusitakoan.
Konpetentziak	I1. Irrati albistearen ezaugarriez jabetu I2. Irratiko albisteetako egitura gramatikalak eta entzunezko baliabideak gauzatu

Ikaslana: irrati informazioaren eta prentsako albisteen arteko erkaketa irrati albistearen ezaugarriei erreparatzeko eta taxuzko irrati berriak idazteko eta esateko gauza izateko.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 120 min.(presentziala, PR)

Klase praktikoa: 60 min.(presentziala, PR)

Ikaslearen lana ordenagailuz: 180 min (ezpresentziala, EzPR)

Prozesua: lehenik, irakasleak teoria azaltzen die ikasleei irrati albisteen ezaugarriak erakutsiz; ondoren, ikasleari prentsa-albiste bat pasatzen zaio eta albiste hori irrati moldatzeko ariketa agintzen zaio. Ikasleak 30 minututan minutu bateko albistea sortu behar du irrati eran jarri eta audio dokumentu bat hautatuz, beti ere arrazoituz aparteko orrialde batean zergatik aukeratu duen audio iturria. Irakasleak alde aurretik albistea joango den dokumentua banatuko die ikasleei. Dokumentu horretan irrati albisteak eraman behar dituen datuak ageriko dira. Klasean lana amaitutakoan, astebeteko epemugaren barruan ikasleak ordenagailuz inprimaturik aurkeztu beharko du albistea eta bigarren orrialdea non audio dokumentuaren hautuaren zergatia azalduko duen. A4 eta Arial 12 letra tipoarekin egin behar du lana ikasleak.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

	<i>Gaizki (3)</i>	<i>Nahikoa (5)</i>	<i>Oso ondo (7)</i>
Albistea irrati eran	Esaldi luzeegiak, zenbakien idazkera desegokia, datuen antolaketa kaskarra, akronimoen idazkera desegokia, bi errakuntza ortografiko baino gehiago.	Aurreko gauzen artean bi gaizki eta hiru ondo.	Aurreko gauzen artean, bostak ondo.

	<i>Gaizki (3)</i>	<i>Nahikoa (5)</i>	<i>Oso ondo (7)</i>
Audio dokumentuaren hautua	Protagonistaren desegokitasuna. Kopiatzeko lizentzia problema handiekin	Protagonista interesgarria izan daiteke. Lizentzia problemarik gabe.	Protagonistak asko ekar liezaioke albisteari; erakargarria oso. Oso lizentzia egokiarekin hautatua.

2. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I-2. Berriak kontatzeko ahots egokiena
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	binakakoa
Denbora	5 ordu (2p-3ezp)
Epemuga	Astebeteko epean, behin ikaslana ikusitakoan.
Konpetentziak	I3. Giza ahotsaren kalitateak. O12. Ikertzeko joera sustatu. O7. Arrazonamendu kritikoa O9. Sormena

Ikaslana: ikasleak irratiko esatarien ahots egokiena aurkitu behar dute, baita konturatu gizonezkoenak ala andrazkoenak hobeak ote diren berriak kontatzeko ere. Ikasleek beraiek egin behar dute galdetegia edo ikerketa irakasleak eginiko azken galderari erantzuteko.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 60 min.(presentziala, PR)

Klase praktikoa: 60 min.(presentziala, PR)

Ikaslearen lana ordenagailuz: 180 min (ezpresentziala, EzPR)

Ekaia: bi artikulua (bata ikerlana eta bestea artikulua zientifikoa)

Prozesua: lehenik, irakasleak "Una voz mágica para contar noticias" deritzon ikerlana banatzen die ikasleei. Ondoren, irakasleak binakako taldeak egiten ditu estudianteei ondorengo ikaslana lantzeko. Kontua honakoa da: berriak kontatzeko zein den ahotsik egokiena eta iradokiorrena, sexua, tonua eta tinbrea aintzat hartuta. Bikoteka daudenez, ikasleen lana antolatzea da hurrengo pausoa. Ikasle batek informazioaren ardura hartzen du, hau da, orain arte horren inguruan idatzi dena arakatzeko, Internet-en aurki daitekeena barne; bikotekideak ikerlana prestatu behar du irakasleak egindako galderari era zientifiko batez erantzun ahal izateko: *andrazkoenak ala gizonezkoenak ote dira ahots egokienak berriak kontatzeko?* Dosierra egin behar dute binakako taldeek A4 tamainan, Arial 12 letra motarekin eta .rtf edo .sxi formatuan. Gehienez 4 orrialdetan (alde bakarrean) aurkeztu behar diote irakasleari lana. Behin lana emandakoan, irakasleak ahotsean aditua den irakasle andere baten dossierra banatuko du, era horretan ikasleek beren lana erkatzeke aukera eduki dezaten.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

	<i>Gaizki (3)</i>	<i>Nahikoa (5)</i>	<i>Oso ondo (7)</i>
Gaiaren inguruko informazioa eta irakasleak banatutako idazlanaren muinaren azalpena	Informazio biltze eskasa, erreferentzia urriak eta garrantzi gabekoak.	Hala-moduzko erreferentziak eta ez askorik.	Erreferentzia asko eta interesgarriak

	<i>Gaizki (3)</i>	<i>Nahikoa (5)</i>	<i>Oso ondo (7)</i>
Galderari emandako erantzunaren arrazoitzea	Gaizki arrazoitua, ikerlan eskasa eta item gutxiegiduna	Nola edo hala arrazoitua, ikerlanean lana ikusten da	Oso ondo arrazoitua eta ikerlana ondo pentsatua eta gauzatua.

3. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I-3. Informazio iturriak irratiko albistegintzan
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	binakakoa
Denbora	3 ordu
Epemuga	Astebete
Konpetentziak	I4. Irrati eta telebistako iturrien kudeaketa nola egin T9. Edozein informazio-iturri edo dokumentu bilatzeko, hautatzeko eta hierarkizatze gaitasuna. O9. Sormena I5. Informazio iturri egokienak irradi motaren arabera asmatu

Ikaslana: ikasleak irratiko albistegintzan zer-nolako iturriak erabiltzen diren ikusten du, irradi motaren arabera batzuk beste batzuk baino egokiagoak direnentz erabakiz. Aldez aurretik informazio iturriaren kontzeptuaz ere jabetzen da ikaslea.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 90 min.(presentziala, PR)

Klase praktikoa: 60 min.(presentziala, PR)

Prozesua: lehenik, irakasleak informazio iturria zer den eta iturri motak zelakoak diren azaldu du klase magistralaren bidez. Ikaslana amaitzeko, ikasleak ikasgelako azalpenak adituta, galdera itxiko galdetegi bati erantzun behar dio. Orotara 10 galdera dira, bakoitzak 4 item dituela. Azterketa egiteko 15 minutu uzten dira eta ondoren irakasleak erantzun zuzenak azaltzen.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

<i>Erantzun egokiak --></i>	<i>0</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>	<i>5</i>	<i>6</i>	<i>7</i>	<i>8</i>	<i>9</i>	<i>10</i>
A -bikain, 10-		.									A
B -oso ongi, 9-8-										B	
C -ongi, 7-7,5-									C		
D -nahikoa, 6-								D			
E -nahikoa 5-							E				
FX gutxi				FX	FX	FX					
F oso gaizki	F	F	F								

CTS eskala (baliokidetzarik ez, aprobatuen ehunekoa erabiltzen delako; hala ere baliokidetzeta maila probatzeko baliagarria daitekeelakoan jarri dut): A (%10), B(%25), C(%30), D(%25), E(%10), FX (lana egin beharra gaitzeko), F (lan asko egin behar)

4. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I4.- info-programazioa eta infosaioak burutzeko eskema aurkeztu
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	binakakoa
Denbora	5 ordu (2p-3ezp)
Epemuga	Astebete
Konpetentziak	I6. Irratian eta telebistan informazio programazioa eta saioak bereizteko gaitasuna

Ikaslana: ikasleak irrati baterako programazioa egin behar du, udakoa ez den programazioa eta lanegunak eta asteburuak bereiztuz.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 60 min.(presentziala, PR)

Klase praktikoa: 60 min.(presentziala, PR)

Ikaslearen lana ordenagailuz: 180 min (ezpresentziala, EzPR)

Prozesua: lehenik, irakasleak programazioa zer den eta zelako programazio motak egon ohi diren azaltzen du ikasgelan. Ondoren, ikasleek binakako taldetan programazio oso bat egin behar dute onena delakoan eta arrazoituz dossierra egin 5 orrialdetan gehienez. Lanak irakaslearen weborrialdean egongo dira deskargatzeko eta ikasleek astebeteko epea dute onena zein izan den adierazteko. Behin botoak batutakoan, irakasleak errubrika baliatuko du ebaluatzeko.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

	<i>Gaizki (3)</i>	<i>Nahikoa (5)</i>	<i>Oso ondo (7)</i>
Albistearen edukiak	Ikasleek emandako botoen artean azken postuetan eta nahiko gaizki arrazoitua. Soziologikoki akatsak dituena.	Nahiko arrazoitua eta egokia. Ikasleek emandako botoen artean erdiko mailan geratu da lana.	Oso ondo arrazoitua eta egokia. Ikasleek emandako botoei esker onenen artean geratu da.

5. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I-5 Telebistako informazio zerbitzuen eta pertsonen antolamendua
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	banakakoa
Denbora	2 ordu (2p)
Epemuga	Astebete
Konpetentziak	17. Telebistako informazio zerbitzuen antolamendu desberdinez jabetu 18. Telebistako informazio alorreko berriemaileen lan desberdinak ondo burutzeko gaitasuna 01. Aztertze eta sintesi gaitasuna.

Ikaslana: Telebistako informazio zerbitzuen eta pertsonen antolamenduz jabetzeko ikaslana.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 120 min.(presentziala, PR)

Ekaia: liburuak eta dokumentu digitalak.

Prozesua: irakasleak klase magistrala ematen du informazio zerbitzuak eta baliabideak nola antolatzen diren ikus dezaten ikasleek. Behin hori eman ostean, galdera sorta bati erantzun behar diote ikasleek. Guztitara 10 dira galderak eta ondorengo errubrikaz ebaluatzen da.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

<i>Erantzun egokiak --></i>	<i>0</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>	<i>5</i>	<i>6</i>	<i>7</i>	<i>8</i>	<i>9</i>	<i>10</i>
A -bikain, 10-		.									A
B -oso ongi, 9-8-										B	
C -ongi, 7-7,5-									C		
D -nahikoa, 6-								D			
E -nahikoa 5-							E				
FX gutxi				FX	FX	FX					
F oso gaizki	F	F	F								

CTS eskala (baliokidetzarik ez, aprobatuen ehunekoa erabiltzen delako; hala ere baliokidetzeta maila probatzeko baliagarria daitekeelakoan jarri dut): A (%10), B(%25), C(%30), D(%25), E(%10), FX (lana egin beharra gainditzeko), F (lan asko egin behar)

6. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I6. Telebistarako hileko albisteak slideshow moduan egin
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	Binakakoa
Denbora	9 ordu
Epemuga	Astebeteko epean, behin ikaslana ikusitakoan.
Konpetentziak	I9. Telebistako albisteen ezaugarriez jabetzeko eta ikusentzunezko albistea egiteko gaitasuna

Ikaslana: telebistarako albiste formatu berezi baten burutzea da. Aspaldi honetan arrakasta eduki duen *Eguneko irudiak* teleaio baten gauzatzea da kontua. Era horretan, ikasleek lehenbiziko pausoak eman ditzakete ikusentzunezko lengoia berenganatzeko eta ohitura testualetatik harantzago joateko.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 240 min. / 4 ordu (presentziala, PR)

Nork bere kasa: 300 min / 5 ordu.(ezpresentziala, EzPR)

Ekaia: liburuak (bibliografia)

Prozesua: irakasleak klase teorikoa ematen du *kamera, planoak, gidoia, narrazioa, soinua* eta *argitza* gaiak jorratuz. Behin azaldutakoan, irakasleak Euskal Telebistan gauean emititzen duten formatu baten bertsio bat nola egiten den erakusten du. Informazio formatu horretan eguneko irudiak ageri dira testu eta musika tartekatuz, informazio pilulak bailiran. Ikasleek antzekoa egin behar dute baina eguneko albisteak jorratu beharrean, hilabetekoak hartuko dituzte aintzat, horrela aukera gehiago emanez irudiak lortzeko. Ordenagailuaren bidez egiten da lana eta Nero, Pro Show Gold edo antzeko softwarea erabiliz burutzen da ariketa CD euskarrian emateko.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

	Gaizki (3)	Nahikoa (5)	Oso ondo (7)
Albistearen edukiak	Informazioa ez da bat ere errelebantea.	Informazioa errelebantea da	Informazio-ekaia oso ondo hautatua eta oso errelebantea
Albistearen burutzea	Erritmo desegokia, kalitate txarreko irudiak, soinu eskasa eta desegokia, testu desegokiak	Erritmo nahiko egokia, kalitate normaleko irudiak, halamoduzko soinua, testu iradokiorrak	Erritmo egokia osoro, kalitate handiko irudiak, oso soinu egokia, oso testu iradokiorrak

7. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I7. Telebistako albiste errakuntzei erreparatuz
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	Banakakoa
Denbora	2 ordu
Epemuga	Astebete
Konpetentziak	I10. Telebistako albisteetako ikusentzunezko lengoia erabiltzeko trebezia. 011. Kalitatearenganako motibazioa

Ikaslana: telebista infosaioretan eskuarki egiten diren errakuntzez jabetzeko ikaslana eguneko praxitik beretik ikasiz.

Baliabideak:

Klase teorikoa: 120 min.(presentziala, PR)

Prozesua: irakasleak teoria azaltzen du telebistalarietarako normalean egiten dituzten errakuntzen berri emanaz. Ondoren, bideo zatiak jartzen dizkie ikasleei zenbait adibide erakutsiz. Amaieran galdera batzuei erantzun behar diete ikasleek. Galdera guztiak praxitik sortutakoak dira eta item moduan daude antolatuta.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

<i>Erantzun egokiak --></i>	<i>0</i>	<i>1</i>	<i>2</i>	<i>3</i>	<i>4</i>	<i>5</i>	<i>6</i>	<i>7</i>	<i>8</i>	<i>9</i>	<i>10</i>
A -bikain, 10-		.									A
B -oso ongi, 9-8-										B	
C -ongi, 7-7,5-									C		
D -nahikoa, 6-								D			
E -nahikoa 5-							E				
FX gutxi				FX	FX	FX					
F oso gaizki	F	F	F								

CTS eskala (baliokidetzarik ez, aprobaturik egotea erabiltzen delako; hala ere baliokidetzaren maila probatzeko baliagarria daitekeelakoan jarri dut): A (%10), B(%25), C(%30), D(%25), E(%10), FX (lan egin beharra gaitzeko), F (lan asko egin behar)

8. IKASLANA

Irakasgaia	Irrati-telebistako informazioaren teoria eta teknika
Ikasturtea	2. maila
Lizentziatura	Kazetaritza
Ikaslana	I8. Informazio telebistaren barnemuinak
Egilea	Gorka Jakobe Palazio
Ikaslan mota	Banakakoa
Denbora	30 ordu
Epemuga	hamabi aste
Konpetentziak	013. Ikasteko ohitura bereganatzea T4. Beste hizkuntza arrotz batzuetan komunikatzeko gaitasuna (testuak irakurriz) O7. Arrazonamendu kritikoa O4. Informazioa kudeatzeko gaitasuna

Ikaslana: informazio telebista birpasatzeko ikaslana, ikasleek ondo menpera ditzaten oinarri teorikoak gai honetan.

Baliabideak:

Klase teorikoa. 25 ordu.(presentziala, PR)

Klase praktikoa: 5 ordu.(ezpresentziala, EzPR)

Prozesua: irakasleak *Informazio telebista/Televisión informativa* deritzon liburuan (oinarrizko bibliografian) ageri diren gaiak azaltzen ditu klasean: ikastaroan zehar ikusitakoak eta hain garrantzitsuak ez zirelako ikusita ez zeuden gaiak Ikasleek *hotlist* edo *zerrenda beroa* egiten dute informazioaren esparruan, telebistaren inguruan egon daitezkeen ziberguneak aztertuz eta aukerak arrazoituz. Hotlist horiek publiko egin behar dituzte kartel moduan ikaskideek ere ikus ditzaten. Bukaeran, ikasleek itemak dituen azterketa gainditu behar dute eta galdera bi derrigorrez hotlistetatik ateratzen dira. Orotara 20 galdera dira.

Ebaluazioa: ikusi errubrika

<i>Erantzun egokiak --></i>	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	
A -bikain, 10-		.																				A
B -oso ongi, 9-																			B	B		
C -ongi, 7-8-																	C	C				
D -nahikoa, 6-															D	D						
E -nahikoa, 5-														E								
FX -gutxi -3-4-							F	F	F	F	F	F	F									
							X	X	X	X	X	X	X									
F -oso gaizki, 0-2-	F	F	F	F	F	F																

CTS eskala (baliokidetzarik ez, aprobatuen ehunekoa erabiltzen delako; hala ere baliokidetzaren maila probatzeko baliagarria daitekeelakoan jarri dut): A (%10), B(%25), C(%30), D(%25), E(%10), FX (lana egin beharra gairatzeko), F (lan asko egin behar)